

# Baztanetik mundura, beltzez eta euskaraz



Zerk eraman zuen Helena Tiucalerat? Nor zer Amerika izeneko kubatarra? Zergatik elkartu ziren Guatemalako 3.546 arima bertzerik ez zuen herri txiki hartan? Eta Nana, nor zen Naña? Nolatan bukatuko zuten Nanak eta Helenak Iruñean?

Zer galdu zitzaion Garbiñeri Dakotan, Pine Ridge lakoten erreserban? Zer lotzen zuen Johnny Douglas Euskal Herriarekin?

Eta On Jaime? Zerk darabilkio On Jaimerri buruan?

Gurutzatzen diren bideak eta gurutzatzen diren munduak. Latinoamerikatik Nafarroako geografia, bertzeak bertze, zeharkatzera eramanean gaituen istorioa da honakoa. Euskara, literatura, sikarioak, ustelkeria... giro beltzezko eleberri eder askoan.

-Amerika, zenbat balio du inoren biziak Tiucalen? -galdegin dio emakumeak.

Txalaparta, (H)ilbeltza ekimenaren eta Baztango Udalaren eskutik jaso zuen duela urtebete Miel A. Elustondok euskarazko literatura beltza sustatzeko antolatutako lehen beka, Baztanen jaso ere. Ordainetan-edo, Nevadan, Renon, Euskal Ikasketen zentroa sortu zuen William Douglasen semea ekartzen du Elustondok Baztanera, Habanatik partitzen duen bere eleberri beltz honetan.

**MIEL A. ELUSTONDO**

**Kezko bola batek itoak biririkak**

1. (H)ILBELTZA  
BEKAREN  
IRABAZLEA

Eleberri beltza

Txalaparta

180 orrialde inguru

17,00 € (inguru)

13,60 € (inguru) **KLub**



**Aldaketa urtarrilaren 25a baino lehen**

## **Beltza bai, baita politikoa ere!**

*Beka jaso zuen egunean Miel A. Elustondok berak aurreratu bezala, Baztan "eskribitu" du, "Elurre Iriarteren literaturak kontatzen duen, kontatzen ez duen Baztan. Ernesto Prat Urzainkiren Telleria. Telleria eta gero, zer? Telleria eta gero, Aroztegia. Eta Aroztegiarekin batera, Nafarroako Abiadura Handiko Trena, gaur ez bada bihar baituzue hemen, edo gisako makurkeria handiagoren bat. Baina hobe Iruñeko agintari makurrei ideia makurrik ez ematea, aski makurkeriari emanak baitira Iruñean, ideia makurrik ematen ibili beharrik gabe ere. Aroztegiarekin batera, mutil dantzak, guardia zibil inzibilak, kritika, ziri eta zirti-zarta. Datorrena datorrela beltza". Eta beltza etorri da, baina politikoa ere bai.*

MIEL A. ELUSTONDO, EGILEA

EGILEA



**Miel A. Elustondok** idaztea du lanbide, baina irakaskuntzan, argitaletxe munduan eta hainbat irrati-zein telebista-saioretan (Sautrelaren sustatzaile eta gidoilari izan da) parte hartu du urteotan. Horrez gain, Berria zein Argia agerkarietan argitara eman ditu hainbat lan. Argazkilaria ere bada. Euskarara ekarri ditu Jim Thompson idazle eta gidoilari estatubatuarren hiru eleberrri (*Hiltzailea nire baitan*, *Amorruaren ume* eta *Libxareroak*) Igela etxean eta sorkuntzan ere aritua da. *Western Basque Festival* (Susa, 2007) eta *William A. Douglass, Mr. Basque* (Pamiela, 2011) idatzi ditu besteak beste. Haur literaturako hainbat lan ere plazaratu ditu.

## LIBURUAREN PASARTEAK

[...]

*Nafarroako Aurrezki Kutxaren zulo beltza*

Holding handi bateko buru eta Kutxako presidentea izana nuen senarra. CA Nek hondoa jo zuelarik, eta ez niri galdetu nola jo dezakeen erreka aurrez-zailek etengabe diruz elikatzen duten kutxa batek, behea jo zuen nire gizon ni baino hogeita bortz urte ere zaharragoak. Ez zen gizon txarra, baina gizon txar ez direnez beterik daude karrikak. Zendu zelarik, gainera jautsi zitzaizkidan hark bereganatuak zituen konpromiso aunitz. Nik uste makur jokatu zuela horretan ere. Ez da erran beharra nire senarrak ez zuela Nafarroako Kutxaren norabidea gidatzeko behar bertze jakituria. Nire begietara, lehenbiziko momentutik ikusi nizun bertzeren txotxongiloa zela, baina ongi ordaindua, arras. Eta sosa etxerat parrastan sartzen delarik, ez duzu haren jatorriaz gal detzen denborarik ematen. Hartaz gozaten zara, bistan da. [...]

[...]

*Aroztegia eta gero zer?*

—Eta zertaz dio afixetan “Aroztegia, ez”? Zura lantzea ez duzu lantegi narra sa. Gazteek ere ez lukete ofizio txarra.

Laisek ez zuen ententitu. Arotza nerabilen nik gogoan. Zurgina.

Hiru Iturriko gizona ez zen nire makurraz ohartu. Andrea, bai, haatik.

—Ez da hori, Johnny. Hor ez da fabrikarik izanen. Aroztegia ez duzu lantegia, baina enpresa... Zuk Amerikako afixetan ikusia duzun proiektuaren sustatzaile. Horiek nahiko lizkizukete hemen berean egin hotela, golf zelaia, hainbertze etxe eta nik ahal dakit zer! Gure ballea itotzen ahal dute! Ordainetan, euren sakelak diruz ongi beteko dituzte. Horixe duzu Aroztegia. Zikinkeria galanta! —Maria Angeles, suak eta keak harturik. [...]



## (H)ilbeltza bekaren nondik norakoak

- Urtero-urtero euskarazko literatura beltza sustatzea du helburu.
- Sorkuntza zein itzulpengintza bultzatuko ditu.
- Baztango Udalaren, (H)ilbeltza ekimenaren eta Txalapartaren arteko elkarlana da.
- 6.000 euroko laguntzaz horniturik dago saria.
- Aurten banatu da 2. beka, Patricia Highsmith-en *The Blunderer* lana euskaratzeko Josu B arambonesek jaso duena.
- Datorren deialdia 2019an izanen da, euskarazko eleberrri beltza sortzeko.
- [baztan.eus/hilbeltza-beka](http://baztan.eus/hilbeltza-beka) web orrian kontsultatu daitezke oinarriak.

*“Euskararen normalizazioan gure mintzoa prestigiatu eta goratzeko ekimena izan nahi du beka. Euskararen komunitateari ekarpen berria egin, literaturan pisu handikoa den genero beltza, euskaraz ere dastatu eta gozatzeko. Eta, modu berean, gure literatura sisteman, idazleen eta itzultzaileen lana sustatzeko”*

JOSEBA OTONDO (BAZTANGO ALKATEA)